

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2022/11/8

Saila	Laburpena
Zerbitzuak	<p>Urkizu 11 zenbakiko dorrearen administratzaileak kexa adierazi du pegora inguruan dagoen higiene-arazoagatik. Esan du zikinkeria asko dagoela eta ez dela behar bezala garbitzen.</p> <p>Kexa Mankomunitateari helarazi zaio; haiek adierazi digute garbitu egiten dela, eta nahiz eta ezin den ureztatu... noizean behin ureztatzen dela. Bilera bat izan dute bizilagunekin eta egoera azaldu zaie.</p>
Hirigintza Udaltzaingoa	<p>Urkizu 11 zenbakiko dorrearen administratzaileak kexa adierazi du pegora horien etxabeetan gazte-lokal asko daudelako. Salatu du haietako askok ez dutela araudia betetzen.</p> <p>Hirigintza Sailak egiaztatu du inguru horretan dauden lokal guztiek bete egiten dutela araudia. Kopuruari eta haien arteko distantziari dagokienez, adierazi behar da Ordenantza aldatu aurretik daudela legeztatuta; hortaz, ezin zaie araudi berria aplikatu.</p>
Zerbitzuak	<p>Auzotar batek kexa azaldu du ur-makina garbitzailea ez delako pasatzen Azitain aldetik.</p> <p>Kexa Mankomunitateari igorri zaio; esan digute astero garbitzen dela, goizean goiz.</p>
Udaltzaingoa	<p>Eskatu du autoen eta motorren zarata-maila kontrolatzeko edo arautzeko.</p> <p>Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrak 7. artikuluan ezartzen duenez, ibilgailuek ezin izango dute zirkulatu "trafikoari buruzko legediaren xede diren bide edo lurretan, baldin eta perturbazio elektromagnetikoak igortzen badituzte eta zarata-maila handiagoa bada gaia berariaz arautzen duten arauetan ezarritako mugak baino". Hau da, ibilgailu guztiek bete beharko dute zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeak (2011n aldatua) jasotzen duen araudia, kutsadura akustikoa prebenitzeari, zaintzeari eta gutxitzeari buruzkoa.</p>
Udaltzaingoa	<p>Auzotar batek eskatu du auzozaina sarriago pasatzeko Barrena kaletik.</p> <p>Gaur egun, plaza horretan ez dago inor, betetzen zuen agentea jubilatua egin delako. Plaza bete arte, behealdeko kontrola Udaltzaingoarean patruilek egiten dute egunero.</p>

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2022/11/8

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Azitaingo auzotar batek salatu du Azitain eta Maltzaga arteko bidegorria kakaz eta zikinkeriaz beteta dagoela; jendeak gauzak lurrera bota eta gero ez dituela garbitzen.	Bidegorria garbitzea eta mantentzea Gipuzkoa Foru Aldundiaren eskumena da. Horren harira, Eibarko Udalak erreklamazio bat igorri du, bidezkoak diren neurriak har daitezzen.
Hirigintza	Azitaingo bizilagun batek salatu du bere etxebizitzaren ondoan enpresa bat dagoela, oso goiz hasten duena bere jarduera, eta zarata handia ateratzen duela.	Adierazi dezala zein den enpresa eta ordutegia eta hitz egingo da jakiteko ea dagokion araudira egokitzen den.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek esan du ibilgailuek Azitaingo trenbidearen pasabidearen ondoan aparkatzen dutela, oinezkoen igarobidea eragotziz.	Gaizki aparkatuta dauden eta pasabidea oztopatzen duten ibilgailuak ikusten baditu, jar dadila harremanetan Udaltzaingoarekin.
Alkatetza	Barrenako bizilagun batek galdetu du ea zer proiektutarako bideratuko diren Eusko Jaurlaritzatik Barrena kalerako lortutako 5 milioi euroak.	Eusko Jaurlaritzak diru hori eman zuen Hijos de Gabilondoren obrarako erabiltzeko.
Hirigintza	Murrategiko auzotar batek galdetu du auzo horretan egitekoa den proiektuagatik, Udalak lursail bat erosi duela-eta.	Udaleko lorezaintzako arduradunarekin hitz egin dugu, eta esan digu apirilaren 28an barandetatik atera eta espaloietara (lur pribatuak) zabaltzen zen sastraka guztia kendu, eta inausketa eta garbiketa egin dela.
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du Murrategi inguruko arbolak inausketa eta sarriagotan garbitzeko.	
Hirigintza	Salatu du erreka oso zikin dagoela Murrategi inguruan.	Jarraipen bat egiten ari dira, baina ez dago isuririk dagoen konstantziarik.
Zerbitzuak	Electrocicloseko bizilagun batek eskatu du sasiak kentzeko trenbideen eta etxebizitzaren artean.	Lan hori ezpondak garbitzeko eta sasiak kentzeko azpikontrataturako enpresak egin zuen, bere azken

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2022/11/8

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Eskatu du gehiago garbitzeko Azitaingo trenbidearen pasabidea.	jarduketan. Toki horretan, zehazki, abenduaren 12an egin ziren lanak. Kexa Mankomunitateari igorri zaio; azaldu digute pasabidea egunero garbitzen dela.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du zer pertsonak osatzen duten Estaziño eta Azitain arteko trenbideak estaltzeko proiektuaren Jarraipen Batzordea.	Udalaren aldetik: alkatea eta Obra Batzordeko lehendakaria. Gainera, teknikari gisa, Obren Unitateko zuzendaria ETSren aldetik: zuzendari nagusia eta Eraikuntza zuzendaria. Teknikariak: Zuzendaritza Zuzendaria eta Obra Zuzendaria.
Udaltzaingoa	Barrena kaleko bizilagun batek salatu du Saratsuegi eta Barrena lotzen dituen errepidetik ibiltzen diren ibilgailuak oso abiada handian joaten direla, eta kexu da abiadura murrizteko jarri diren takoek zarata handia ateratzen dutela gaineratik pasatzean.	Kale horretan, Eibarko erdigune osoan bezala, abiaduraren muga 30 km/h-koa da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek adierazi du euria egiten duenean ur-jauzi bat sortzen dela Orbeako dorrearen ondoan, Quironen aldamenean.	Kanaletak jasotzeko zain gaude, haiek ordeztu ahal izateko. Bestalde, Mankomunitateak kanaletak garbitu ditu Zubi-gaineratik Quironeraino.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Laboral Kutxa parean dauden jardinak inguratzen dituzten petrilak konpontzeko. Dioenez, apurtuta daude eta puntan dute akabera, eta hori arriskutsua dela oinezkoentzat.	Lan-agindu bat egin zen petril guztiak berrikusi eta konpontzeko. Lan hau 2023ko apirilaren 19an amaitu zen.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2022/11/8

Saila	Laburpena	
Obrak	Batek eskatu du aparkaleku-plaza gehiago egiteko Asua-Erreka inguruan.	Horretan dihardute.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du erantzuteko uda-webgunearen “Abisuak, kexak eta iradokizunak” atalaren bidez jarritako kexari, Matxarian dauden sasiak direla-eta.	Kexak aztertu ondoren, sasiak kendu ziren ABC fabrika zaharraren aurrean, bai eta oinezkoa galtzadan sartzera behartzen zuten sastraka ere. Lan hau otsailaren 1ean eta 9an egin zen. Komeniko litzateke kexak hobeto kokatzea.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du sasiak eta adarrak garbitzeko Azitain eta Maltzaga arteko bidegorriaren zati batzuetan, eta, baita, hostoak kentzeko ere.	Bidegorria garbitzea eta mantentzea Gipuzkoa Foru Aldundiaren eskumena da. Horren harira, Eibarko Udalak erreklamazio bat igorri du, bidezkoak diren neurriak har daitezen.
Zerbitzuak	Auzotar batek jakinarazi du baranda bat jausita dagoela, autopistaren ordainlekuaren inguruan, Azitain eta Maltzaga arteko bidegorriaren hasieran.	Baranda Foru Aldundiak konpondu zuen.
Zerbitzuak	Eskatu du konpon dadila Azitain eta Maltzaga lotzen dituen bidegorriaren bigarren zubia pasatuta dagoen saretaren zuloa.	Bidegorria mantentzea Gipuzkoa Foru Aldundiaren eskumena da. Horren harira, Eibarko Udalak erreklamazio bat igorri du, bidezkoak diren neurriak har daitezen.
Zerbitzuak	Eskatu du bidegorrian dauden grafitiak garbitzeko, hormaren estetika zainduz.	Bidegorria mantentzea Gipuzkoa Foru Aldundiaren eskumena da. Horren harira, Eibarko Udalak erreklamazio bat igorri du, bidezkoak diren neurriak har daitezen. Udal Lantaldeak bankuen grafitiak erretiratu zituen, grafitiak kentzeko ezohiko programa egin zenean.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2022/11/8

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du paperontzi gehiago jartzeko eta argiztapen gehiago bidegorriaren hainbat puntutan.	Aldundiaren ardura da bidegorria mantentzea; hala ere, eskaera bat egin zaie paperontziak jartzeko, eta jasotako erantzuna da ez dagoela horretarako aurrekonturik. Argiteriari dagokionez, jakinarazi behar da badagoela Aldundiak egin behar duen baterako proiektu bat, Eibar eta Elgoibar arteko argiteriarako.
Obrak	Batek eskatu du komun publikoa jartzeko bidegorrian.	Bidegorria Foru Aldundiaren eskumena da. Eskabidea egin da eta horretan ari dira lanean.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Garajes García ondoko hustubidea garbitzeko. Esan du tratatuta dagoela.	Kexa igoari ziztaion Mankomunitateari; esan digute bileraren ondoren garbitu zela, eta gero berriz ere garbitu dutela.
Zerbitzuak	Bizilagun batek kexa azaldu du espaloiak zikin daudelako Azitaindik aurrera.	Ez dakigu zehazki zein eremuri buruz ari den; hala ere, Mankomunitatearekin hitz egin ondoren, jakinarazi digute Azitain industrialdea asteazken eta larunbatetan garbitzen dela, eta Azitain-bide eta Murrategi eremuak astean 2 egunetan, normalean astelehenetan eta ostegunetan.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku-plazak gaizki erabiltzen direla.	Udaltzaingoak kontrolatzen du desgaitasuna dutenentzat gordetako lekuetan aparkatzeko txartelak; eta desegoki erabiltzen direnean, salatu egiten du. Kasu batzuetan, txartela kendu ere egiten da. Herritarrek halako jokaerak atzematen dituztenean, Udaltzaingoari adierazi behar diote.
Zerbitzuak	Kexu da auzoa zikin eta ilun dagoela.	Ez dago argi zer esan nahi duen zehazki; hala ere, jakinarazi behar da argiteriarekin lotutako konponketa asko egin direla.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2022/11/8

Saila	Laburpena	
		ekialdean (Barrena, Saratsuegi, Matxaria, Txonta, eta abar). Komeniko litzateke hobeto zehaztea zer tokiri buruz ari den.
Alkatetza	Bizilagun batek salatu du hutsik dauden lokal asko daudela Barrenan.	Lokal pribatuak dira. Udalak dirulaguntzak ematen ditu; bonoak eta bestelakoak egiten dira establezimendu mota desberdinak sustatzeko.
Alkatetza	Esan du Estaziño eta Azitain arteko trenbide gaineko pasealekua ez dela jasangarria eta ez dela auzoan integratzen.	Iritzi pertsonala da. Gure ikuspuntutik, esandakoa betetzen du.
Zerbitzuak	Bizilagun batek esan du Estaziño eta Azitain arteko trenbide gaineko pasealekua ezingo dela behar den bezala garbitu, ezingo delako garbitzeko makinarik iritsi.	Garbitzeko makina pasatzeko espazioa 2,2 metro zabal izango litzateke, baita biraketa egiteko ere, toki zuzena ez balitz. Hala ere, proiektua dagoenean, aztertu egingo da.
Alkatetza	Bizilagun batek galdetu du ea noiz hasi behar diren Hijos de Gabilondo tailerraren eraberritze-lanak, eta esan du trenbideko estaldura egiteko lanak egin behar dituen enpresa tailerra erabiltzen ari dela obra-materiala pilatzeko.	Badago prentsa-ohar bat Hijos de Gabilondoren obrak direla-eta.
Alkatetza	Bizilagun batek informazioa eskatu du hurrengo urteetan auzoa berroneratzeko aurreikusitako proiektuetarako.	Badago prentsa-ohar bat Hijos de Gabilondoren obrak direla-eta.
Obrak	Bizilagun batek eskatu du ea noiz hasi behar diren trenbidea estaltzeko obrak.	Hasita daude dagoeneko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2022/11/8

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Bizilagun batek salatu du Murrategi ingurua degradatuta dagoela, eta galdetu du Udalak auzorako dituen planengatik.	Gobernu zentralak diru-kopuru bat eman zigun inguru horretarako erabiliko dena plan berezi baten bidez. Aurki egingo dugu.
Alkatetza	Bizilagun batek galdetu du ea auzotarrek ekarpenak egin ahal izango dituzten Hijos de Gabilondo etxe tailerra zaharberritzeko proiekturako.	Ez
Udaltzaingoa	Bizilagun batek esan du Barrena kalean dagoen radarra okerreko aldera bideratuta dagoela, justu aurrean arbola bat baitago.	Radar horrek abiadura bi noranzkoetan neurtzen du, eta beharrezkoak diren ziurtagiri guztiak pasatzen ditu, behar bezala erabiltzen dela bermatzeko.
Alkatetza	Bizilagun batek galdetu du ea Hijos de Gabilondo eraberritzeko proiektuan eraikina mantentzea aurreikusita dagoen.	Bai, eutsi egingo zaio eraikinari. Prentsa-oharra dago.
Hirigintza	Auzokide batek galdetu du ea noiz aurkeztu behar zaien auzokoei Txontako Babes Ofizialeko 200 etxebizitzaren eraikuntza-proiektua.	Gaur egun, HAPOn aldaketa puntuala egiten ari dira, auzoaren antolaketa berria jasotzeko, bai iparraldean, bai hegoaldean. 200 etxebizitzaren proiektua Eusko Jaurlaritzarena da, eta aktiboki ari da hartan lanean. Proiektua behar den bezala jendaurrean jarri eta azalduko da, auzoaren antolamendua amaitu ondoren eta osoko bilkurak behar bezala onartu eta gero.
Hirigintza	Herritar batek galdetu du ea 2022ko Aurrekontuetan sartu behar den partida ekonomiko bat Txontan Lokal Soziokulturala egiteko.	EZ.Baina lan egingo dugu 200 etxebizitzak eraikitzeko obrei ekiten zaienean, Eusko Jaurlaritzak Etxabe bat bideratu dezan erabilera soziokulturalerako.
Obra	Bizilagun batek eskatu du Txontako espaloia zabaltzeko.	Beste galdera batekin erantzunda gelditzen da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2022/11/8

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Eskatu du zarataren aurkako panelak eta segurtasun-panelak jartzeko A-8 autopistan, Txontatik pasatzean.	Foru Aldundiari eskatu zitzaion, eta erantzun ziguten ez zela beharrezkoa. Guk egingo dugu aurki.
Hirigintza	Eskatu du segurtasun-neurriak hartzeko, harri-morroiloak jausten ari baitira hutsik dauden enpresa batzuetatik.	Enpresa pribatuak izanik, eraikinen mantentzearen ardura jabeena da. Harri-morroilo horiek jausten ari direla jakiten dugunean, Udaltzaingoari helarazteaz gain, Hirigintzaren aldetik dagozkion segurtasun-neurriak har ditzan, jabeei zuzentzeko eskatzen zaie. Udalak jarraipen bat egingo du.
Udaltzaingoa	Salatu du Txonta kaletik jaisten diren ibilgailuak oso azkar ibiltzen direla.	Kale horretan, Eibarko erdigune osoan bezala, abiaduraren muga 30 km/h-koa da.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek proposatu du alda dadila trafikoaren zirkulazio-noranzkoa, hala, igotzeko noranzkoa izateko Urkizuko pasealekuaren eta Galizia pasealekuaren artean.	Proposatutako zirkulazio-noranzkoak aldatuz gero, Arane, Urtzaile eta Bidebarrieta kaleetatik irteten diren kamioien eta ibilgailuen irteera oso konplikatua izango litzateke, kale horietan dauden konfigurazioetatik.
Udaltzaingoa	Salatu du, sarritan, ibilgailuak gaizki aparkatzen direla Txontan, eta oztopatu egiten dutela tamaina handiagoko ibilgailuen igarobidea. Eskatu du aparkalekuak kentzeko kale horretatik.	Azken urteotan, debekatu egin da aparkatzea hirugarren kategoriako ibilgailuen igarobideari arazoak sortzen zitzaizkion tokietan.
Hirigintza	Eskatu du fibrozementua kentzeko Txontako eraikin industrialetako batzuen estalkietatik.	Fibrozementua elementu inerteza da, hau da, manipulatzeko ez bada, ez da arriskutsua osasunarentzat. Fibrozementua edo amiantoa bezalako beste elementu batzuk dituzten eraikinetan lan egin behar bada, OSALANI jakinarazten zaio, segurtasunez kentzeko neurriak har ditzan.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2022/11/8

Saila	Laburpena	
Obrak	Eskatu du oinezkoen espazio gehiago sortzeko Txontan.	200 etxebizitza eraikitzeko Eusko Jaurlaritzaren obrak urbanizazio oso indartsua ekarriko dio auzoari: Txontako kalea oinezkoentzako izatea aurreikusten da eta plaza handi bat egitea 15 eta 17 zenbakien ondoren. Beraz, obra hori egiten denean, eremu libreak sortuko dira.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatu du aparkaleku-plaza gehiago jartzeko Galiziako pasealekuan, eta aldatzeko gaur egun dauden plazen konfigurazioa, lerrotik bateriara pasatuz.	Bidearen zabalerak eta konfigurazioak ez dute aholkatzen aurrekontua aldatzea.
Zerbitzuak	Bizilagun batek esan du farolen argia ez dela espalaira iristen, arbolen altueragatik.	2023ko urtarrilaren 12an inguru horretako argiak berrikusi eta konpondu egin ziren. Bestalde, jakinarazi zen Galizia hiribideko arbolak 2023ko urtarrilaren 24an inausi zirela.
Udaltzaingoa	Barakaldo kaleko 17 zenbakiko bizilagun batek galdetu du ea eduki daitekeen ibilgailu bat aparkatuta bide publikoan, nahi den beste denboran. Kontrol gehiago eskatu du.	Hiri Izaerako Bide Publikoetako Erabilerak, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzak 9. artikuluan, 5.13 puntuan, debekatu egiten du "leku berean hilabete baino gehiagoz jarraian aparkatzea".
Udaltzaingoa	Salatu du burdina-zatiak jausten direla autopistako zubitik, Maltzaga inguruan. Eskatu du zerbait egiteko.	Halako gertakariren bat izanez gero, berehala jakinarazten zaio Bidegiri, huraxe baita autopistako mantentze-lanaren arduraduna.
Hirigintza	Galdetu du ea zelan dagoen Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren berrikuspen prozesua.	Une honetan HAPOren aurrerapena amaitu da, alegia, idatzi aurreko fasea, eta lizitaziora aterata da plan orokorraren

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2022/11/8

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Salatu ditu trenbide gaineko pasealeku berria eraikitzeak auzotarrei eragingo dizkien afekzioak.	idazketa. Laster jakingo dugu zein den ardura izango duen entitatea. Prozesuak hainbat urte irauten du (4 bat urte). Obra guztiek bezala, honek ere bere afekzioak ditu. Pazientzia edukitzea eskatzen da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du garbitzeko Lapeyra tren-geltokiarekin lotzen duen espaloia.	Mankomunitateari jakinarazi zitzaion; eta haiek, kexa zer punturi zegokion garbi ez izan arren, baieztatu digute inguru hori garbitu zela bere garaian.
Zerbitzuak	Eskatu du Azitaingo tren-geltokiko parkea garbitzeko.	Mankomunitateari jakinarazi zitzaion.
Zerbitzuak	Eskatu du txukuntzeko saihesbidean dagoen pasealekua. Dioenez, pasealeku horrekin, ez da beharrezkoa beste bat eraikitzea trenbide gainean.	Saihesbideko pasealekua 2023ko garbitu da eta sasiak kendu dira. Heskaia urtean behin mozten da, eta belarra urtean 2-3 aldiz.
Alkatetza	Asua-Errekako bizilagun batek informazioa eskatu du Hijos de Gabilondoren erosketaren Alkatetzaren ebazpen-datari buruz.	Erosketa 2022ko ekainaren 6an egin zen.
Alkatetza	Galdetu du ez zer egin behar den Hijos de Gabilondorenean.	Prentsa-oharrea jakinarazi zen horri buruz.
Hirigintza	Salatu du trenbide gaineko estaldurak handitu egingo duela trenek, igarotzean, ateratzen duten zarata. Ziurtatu du soinuak oihartzun egingo duela.	ETSrekin batera lan egin zen azterlan akustiko bat egiteko. Lan hori bizilagunei azaldu zitzaion, eta ondorioztatu zen inpaktua ez zela handituko, baizik eta murriztu egingo zela. Azterlan horri lotzen gatzazkio.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2022/11/8

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Bizilagun batek adierazi du 2008ko Hiri Antolamendurako Plan Nagusian jasotzen zela trena estali egin behar zela.	Ez da zehatza, HAPOk ezartzen zuena zen gaur egungoaren ordezkotako ibilbide bat, eta Eusko Trenbide Sareak baztertu egin zuen ibilbide hori; hortaz, nahiz eta HAPOn sartu, jakinakoa zen ETSk aukera hori baztertu zuela. Plan orokorraren aurrerapenean, hirugarrenei dagozkien obrak sartu behar direnean, planean sartu aurretik hirugarrenen oniritziarekin egingo ditugu.
Zerbitzuak	Kexu da asteburuetan Mankomunitateko langileak ez direla Urkizutik pasatzen.	Mankomunitateak jakinarazi digu Urkizutik asteko 7 egunetan pasatzen direla, bai eta igande eta jaiegunetan ere. Garbitu egiten da eta paperontziak jasotzen dira.
Zerbitzuak	Eskatu du argien mantentze-lana hobea egiteko.	Udaleko elektrikarien Lantaldeak bere mantentze-programa argiak konpontzeko eskariaren arabera egiten du.
Alkatetza	Galdetu du ea zer plan duen Udalak Matxaria ingurua hobetzeko.	Hainbat plan daude Matxariako ingurua hobetzeko: Pasealekua, parkingak eraikitzea ingurua pixka bat antolatzeko...